


# IRABAZI ITURRIAK




Aritz Sagarna  
Itoitz Salaberria  
Xabier Zamora  
Olatz Sanchez

Diru sarrera bakoitzak prezio mekanismo ezberdin bat eduki dezake. Prezioa ezartzeko mekanismo bat edo bestea aukeratzeak alde nabarmena izan dezake diru-sarreretan.

Gure enpresak izango duen irabazi-iturri mota nagusia, ordainketa bakarraren bidezkoa izango da, hau da, bezeroek gure zerbitzua erabiltzen duten bakoitzean ordaindu egin beharko dute. Hala ere, ordainketa hori egiteko txartela edukiko dute eskuragarri eta ordaintzeko orduan banda magnetiko bat erabiliko da. Horretarako, noski, txarteletan dirua sartu beharko dute erabiltzaileek aurretik.

Irabazi iturriei dagokienez, irabaziak eskuratzeko hainbat baliabide konbinatuko ditugu. Gure kasuan, aktiboen salmenta eta erabilera prima oso uztarturik egongo dira. Hasteko, erabiltzaileari produktu edo ondasun baten jabe izateko aukera/askatasuna, eskaintzen diogu, hau da, produktu fisiko baten eskubideak saltzen dizkiogu (inprimatu dezakeena). Era berean, zerbitzu bat eskaintzen dugunez, irabaziak lortzeko erabilera prima ere baliatuko dugu, aktiboen salmentarekin lotura zuzena duena. Erabilera primak, zerbitzu jakin erabiltzearen truke kobratzean datza.



Horrez gain, bazkide bakoitzak, bazkide txartel bat izango du. Txartel hori diruz betetzea norberaren ardura izango da. Horrek ez du esan nahi, txartela eskuratzeko orduan ordainduko ez dutenik. Gure proiektuak oinarrian diru kopuru bat izan dezan, txartel bakoitza eskuratzeko orduan bost euro ordaindu beharko ditu kide bakoitzak.

Azkenik, prezioei dagokienez, enpresak eskaintzen dituen zerbitzuek prezio finkoak izango dituzte; zerrendako prezioak. Hau da, zerbitzu (mota) bakoitzak bere prezioa izango du, eta enpresa barruan arazo edo aldaketak beharrezkoak ikusten ez badira, ez dira prezioa aldatuko. Ez du berdina balioko kolorean inprimatzea edo gris kolore-eskalan. Horrek ez du esan nahi proiektua martxan dagoen une guztietan prezioak berdinak izango direnik, izan ere, baliabideen prezioa aldatzen bada, zerbitzuaren prezioak ere aldatu egingo dira.